

MENDIALDEA ESKUALDEKO AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKORAKO PLANA

Arano, Areso, Araitz, Atetz, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Lekunberri eta Leitzako Udalak, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Cederna Garalur, Mendialdea Eskualdeko Aktibazio Sozioekonomirako Plana diseinatzeko ari gara hurrengo urteetarako, Nafarroako S4 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian oinarrituta.

Aktibazio Plana modu parte-hartzailean egiten ari da eskualdeko sektore ekonomikoetako funtsezko eragileekin batera. 2022ko lehen seihilekoan 8 sektore ekonomiko estrategikoren diagnostikoa egin da. Talde Eragileak (udalek, Plazaolak eta Cederna Garalurrek osatuta), garapen-ahalmen handienak dituzten 5 sektore hautatu ditu ekainaren 1ean egindako 3. Saioan, hala nola: Elikadura Osasungarria, Energia Berdearen Industria, Industria zentzu zabalean, Turismo Jasangarria eta Ostalaritza eta Merkataritza.

Horien gainean ekintza-plan bat egingo da eta horretarako ekainean Planaren proposamen-faseari ekiten diogu. Hautatutako sektore bakoitzeko Living Lab bat (ideien laborategi esperimentalak) egingo dugu modu parte-hartzailean. Sektoreak zuzenean ezagutzen dituzten pertsona eta erakundeek parte hartuko dute topaketa hauetan, funtsezko ekintzak diseinatzeko eta sektore horiek hurrengo urteetan bultzatzeko.

Parte hartu nahi duzu?

Parte-hartze prozesua Mendialdeko pertsona guztiei irekita dago. Cederna Garalurren webgunean (<http://www.cederna.eu/mendialdea-plana/>) eskualdearen etorkizun ekonomikoari buruzko ikuspegia emateko aukera duzue herritarrek, bertan aurkituko duzuen postontziaren bitartez. Denbora errealean eguneratutako proiektuaren dokumentazioa ere aurkituko duzue, baita harremanetarako mezu elektronikoa bat: mendialdeaplana@cederna.es

Lagundu dezakezula uste baduzu edo beste modu batera parte hartu nahi baduzu, jar zaitezke harremanetan honako postaren bidez mendialdeaplana@cederna.es